

GATAZKAK JUDIZIOZ KANPO EBAZTEKO ARAUTEGIA

1. artikulua.- Arautegi honen helburua da Euskal Kanoe Federazioaren Estatutuetan ezarritakoa garatzea, gatazkak judizioz kanpo ebazteari dagokionez.

Gatazkak judizioz kanpo ebazteari arbitrajea eta kontziliazioa orokorrean arautzen duten legedi publiko zehatza aplikatuko zaio eta baita ere kirolean gatazkak judizioz kanpo ebazteko beste formula batzuk.

Arautegi hau Euskal Kanoe Federazioko Estatutuen eta zuzenbideko testuinguru orokorraren osagai izango da, eta erregulatzen du federazio horren eta bertako federatuen edo kideen artean (edo euren artean) eman daitezkeen gatazkak edo ezadostasunak judizioz kanpo ebazteko araudia edo arbitraje erregimen zehatza. Era berean, hirugarren baten esku uzten bada, horren eta Federazioaren, federatuaren edo kidearen arteko harremana arautuko du.

2. artikulua.- Administrazioak Euskal Kanoe Federazioari eskuordetutako funtzio publikoarekin lotutako gaiak eta arbitrajez kanpo espresuki utzi diren gai legalak izan ezik, gainotzeko gaiak bide honetan ebatzi ahal izango dira.

3. artikulua.- Euskal Kanoe Federazioa arautegi honetan erregulatzen den arbitrajearen mende geratuko da, borondatez, eta, ondorioz, Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren eta haren arauen mende.

Federazio lizentziaren titularrak gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemari borondatez men egingo diotela iritziko zaio, baldin eta lizentzia lehen aldiz igorri eta hilabeteko epean edo arautegi hau argitaratu eta hilabeteko epean, espresuki uko egin ez badiote.

Federazio lizentzia eduki behar ez duten Euskal Kanoe Federazioko kideek (lehendakaria eta Zuzendaritza batzarkideak, zuzendariak eta teknikaria, etab.) gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemari borondatez men egingo diotela iritziko zaio, baldin eta kargua hartu eta hilabeteko epean edo arautegi hau argitaratu eta hilabeteko epean, espresuki uko egin ez badiote.

Euskal Kanoe Federazioan inskribatuta dauden klubak eta kirol taldeak gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemari borondatez men egingo diotela iritziko zaio, baldin eta inskribatu eta hilabeteko epean edo arautegi hau argitaratu eta hilabeteko epean, espresuki uko egin ez badiote.

4. artikulua.- Ukoa idatziz egin beharko da, eta kidetze datuak adierazi beharko dira (izen-abizenak edo izen soziala, helbidea eta IKZ), eta, hala dagokionean, baita lizentzia zenbakia ere.

Euskal Kanoe Federazioak ukoa horretarako liburu zehatz batean jasoko du.

5. artikulua.- Euskal Kanoe Federazioak ukoaren berri emango die hirugarrenei soilik, izaera orokorrarekin atzera bota ez bada eta informazioaren eskatzaileak lizentziaren titularrarekin edo Euskal Kanoe Federazioko kidearekin ezadostasuna edo gatazka duela adierazten badu eta arautegi honetan erregulatzen den gatazkak epaitegiz kanpo ebazteko sistemari men egiteko asmoa erakusten badu.

Interesdunak informazioa idatziz eskatu beharko du, eta Federazioak, era berean, idatziz erantzun beharko du.

Euskal Kanoe Federazioaren jakinarazpena eskaera jaso eta 7 egun balioduneko epean egin beharko da.

6. artikulua.- Euskal Kanoe Federazioko kideek eta/edo federatuek, arbitrajeari espresuki uko ondoren, arbitrajea onartzen badute, izaera orokorrarekin zein gatazka edo desadostasun bat ebazteko, konpromisoa sinatu beharko dute arautegi honen eranskinean ezarritako baldintzetan men egiten diotela esanez.

7. artikulua.- Orokorrean men egiten zaionean, idatzia edozein unetan aurkeztu ahal izango da.

Kasu horretan, Euskal Kanoe Federazioak baja emango du hasiera bateko oharra, arautegi honetan ezarritakoa betez.

8. artikulua.- Gatazka edo desadostasun jakin bati dagokionean, interesdunakFederazioari edo Kirolaren Arbitrajeko Euskal Epaimahaiari jakinaraziko dio, hirugarren interesdunak edo Federazioak (hirugarrenak hala eskatuta) eskakizuna egin eta hamabost eguneko epean.

9. artikulua.- Arbitrajea gauzatzen duen eta gatazkak epaitegiz kanpo ebazten dituen organoa Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaia da, Euskal Kirol Federazioen Batasunak osatutakoa.

10. artikulua.- Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiak ezarriko du arbitrajea aplikatzeko prozedura, eta, hala badagokio, prozedura arauetan aurreikusitako gatazkak epaitegiz kanpo ebazteko sistema.

11. artikulua.- Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiaren laudoak –borondatez edo nahitaez– gauzatzerakoan, Epaimahaiaren beraren Kirol Arbitrajeko Kodeari jarraituko zaio.

12. artikulua.- Aldeek arbitrajeari men egiten badiote, bide juridikzionalari uko egingo diote, eta iradokitako laudo arbitralaren mende geratuko dira.

Indarrean, 2011ko ekainaren 28tik

ERANSKINA

1. - Eredu federatua.

..... jaun/andreak,
NAN zenbakia eta egoitza helbidean
dituenak, Euskal Kanoe Federazioko lizentzia zenbakiarekin,
idazki honek bitartez, adierazi du Federazioak ezarri eta arautzen duen
sistemari espresuki men egiten diola gatazkak epaitegiz kanpo ebazteko,
Federazioaren eta sinatzailearen nahiz federatuen edo kideen eta sinatzailearen
artean eman daitezkeen desadostasunak edo gatazkak konpontzerako garaian.

.....n, aren(e)(a)n.

Sin.:

2. - Kideen eredia.

..... jaun/andreak,
NAN zenbakia eta egoitza helbidean
dituenak, Euskal Kanoe Federakuntzaren kide den honek, idazki honek bitartez,
adierazi du Federazioak ezarri eta arautzen duen sistemari espresuki men
egiten diola gatazkak epaitegiz kanpo ebazteko, Federazioaren eta
sinatzailearen nahiz federatuen edo kideen eta sinatzailearen artean eman
daitezkeen desadostasunak edo gatazkak konpontzerako garaian.

.....n, aren(e)(a)n.

Sin.:

3.- Klubeko edo kirol elkarteko eredia.

.....andreak jaun/andreak,NAN
zenbakidunak,ren orde, IFZ eta egoitza
..... helbidean dituena, Euskal Kanoe
Federaziokolizentzia zenbakiarekin, idazki honen bitartez adierazi du
espresuki men egiten diola Federazioak ezarritako eta araututako gatazkak
epaitegiz kanpo ebazteko sistemari, Federazioaren eta sinatzailearen nahiz
federatuen edo kideen eta sinatzailearen artean eman daitezkeen
desadostasunak edo gatazkak ebazteko.

.....an, aren(e)(a)n.

Sin.: